

CODIGO CIVIL.- Antecedentes legislativos

Ley de Bases de 11 de mayo de 1888, autorizando al Gobierno para publicar un Código Civil, con arreglo a las condiciones y bases que se establecen en esta ley (Gaceta núm. 143, de 22 de mayo de 1888)

Don Alfonso XIII, por la gracia de Dios y la Constitución, Rey de España, y en su nombre, y durante su menor edad, la Reina Regente del Reino;

A todos los que la presente vieren y entendieren, sabed, que las Cortes han decretado y Nos sancionado lo siguiente:

1. Se autoriza al Gobierno para publicar un Código civil, con arreglo a las condiciones y bases establecidas en esta ley.
2. La redacción de este cuerpo legal se llevará a cabo por la Comisión de Códigos, cuya Sección de derecho civil formulará el texto del proyecto, oyendo, en los términos que crea más expeditos y fructuosos, a todos los individuos de la Comisión, y con las modificaciones que el Gobierno crea necesarias, se publicará en la «Gaceta de Madrid».
3. El Gobierno, una vez publicado el Código, dará cuenta a las cortes, si estuvieren reunidas, o en la primera reunión que celebren, con expresión clara de todos aquellos puntos en que haya modificado, ampliado o alterado en algo el proyecto redactado por la Comisión, y no empezará a regir como ley ni producirá efecto alguno legal hasta cumplirse los sesenta días siguientes a aquel en que se haya dado cuenta a las Cortes de su publicación.
4. Por razones justificadas de utilidad pública, el Gobierno, al dar cuenta del Código a las Cortes, o por virtud de la proposición que en éstas se formule, podrá declarar prorrogado ese plazo de sesenta días.
5. Las provincias y territorios en que subsiste derecho foral, lo conservarán por ahora en toda su integridad, sin que sufra alteración su actual régimen jurídico por la publicación del Código, que regirá tan sólo como supletorio en defecto del que lo sea en cada una de aquellas por sus leyes especiales.

El título preliminar del Código, en cuanto establezca los efectos de las leyes y de los estatutos y las reglas generales para su aplicación, será obligatorio para todas las provincias del Reino.

También lo serán las disposiciones que se dicten para el desarrollo de la base 3.; relativa a las formas de matrimonio.

6. El Gobierno, oyendo a la Comisión de Códigos, presentará a las Cortes en uno o en varios proyectos de ley los apéndices del Código civil, en los que se contengan las instituciones forales que conviene

KODE ZIBILA.- Legegintzako aurrekariak

1888ko maiatzaren 11ko Oinarri-legea, Gobernuari baimena eman diona, lege horretan ezarritako baldintza eta oinarriekin bat etorritik Kode Zibila argitaratzeko (1888ko maiatzaren 22ko Gazeta, 143. zk.)

Alfontso XIII.ak, Jainkoaren graziagatik eta Konstituzioaren aginduz Espainiako errege, eta, horren izenean, beraren adingabetasuna bitartean, erresumako erreginaordeak;

Lege hau ikusi eta ulertzen duten guztiei. Jakin ezazue Gorteen dekretatu dutela eta Guk berronetsi dugula honako hau:

1. Gobernuari eskuespena eman zaio, lege honetan ezarritako baldintza eta oinarriekin bat etorritik Kode Zibila argitaratzeko.
2. Kodeen Batzordeak idatziko du lege-testu hori. Batzorde horretako Zuzenbide Zibileko Atalak proiektuaren testua prestatuko du, eta, horretarako, batzordeko kide guztiei entzungo die, modurik argi eta egokienean. Ondoren, eta Gobernuaren ustez beharrezkoak diren aldarazpenak egin eta gero, testua «Madrilgo Gazetan» argitaratuko da.
3. Behin kodea argitaratu eta gero, Gobernuak jakinarenean gainean jarriko ditu Gorteen, horiek bilduta badaude edo, bestela, euren lehenengo bilera-egunean. Gobernuak argiro-argiro adieraziko die Gorteei zeintzuk izan diren batzordearen proiektuan egindako aldarazpen, zabalkuntza eta aldaketak. Gorteei argitalpenaren berri eman zaienetik hirurogei egun igaro arte, proiektuak ez du lege-indarririk izango, eta ez du legezko ondorerik sortuko.
4. Herri-onurako arrazoi zuzenik izanez gero, Gobernuak hirurogei eguneko epe hori luza dezake, Gorteei kodearen berri ematen dienean edo gorte horietan azaldutako proposamenaren ondorioz.
5. Probintzia eta lurralde jakin batzuetan foru-zuzenbidea indarrean badago, probintzia eta lurralde horiek oso-osorik eutsiko diote zuzenbide hori oraingoz bederen, eta euren egungo araubidean ez da inolako aldaketarik izango kodea argitaratzearen ondorioz; Kode Zibila ordezkoa baino ez da izango, probintzia eta lurralde horietako lege berezietan ordezko beste zuzenbiderik ez dagoenean.

Nolanahi ere, kodearen atariko titulua bete beharrezkoa izango da erresumako probintzia guztientzat, titulu horrek lege eta estatutuen ondoreak, eta aplikaziorako erregela orokorrak ezartzen dituen heinean.

Modu berean ere, bete beharrezkoak izango dira ezkontzaren formei buruzko 3. oinarria garatzeko zein xedapen eman eta halakoak.

6. Kodeen Batzordeari entzun eta gero, Gobernuak Gorteei aurkeztuko dizkie, lege-proiektu bakarrean edo anitzetan, Kode Zibilaren eranskinak. Eranskin horietara bilduko dira probintzia edo lurralde

conservar en cada una de las provincias o territorios donde hoy existen.

7. No obstante lo dispuesto en el artículo anterior, el Código civil empezará a regir en Aragón y en las Islas Baleares al mismo tiempo que en las provincias no aforadas, en cuanto no se oponga a aquellas de sus disposiciones forales y consuetudinarias que actualmente estén vigentes.

El Gobierno, previo informe de las Diputaciones provinciales de Zaragoza, Huesca, Teruel é Islas Baleares y de los Colegios de Abogados de las capitales de las mencionadas provincias, y oyendo a la Comisión general de codificación, presentará a la aprobación de las Cortes, en el plazo más breve posible, a contar desde la publicación del nuevo Código, el proyecto de ley en que han de contenerse las instituciones civiles de Aragón é Islas Baleares que convenga conservar.

Iguals informes deberá oír el Gobierno en lo referente a las demás provincias de legislación foral.

8. Tanto el Gobierno como la Comisión se acomodarán en la redacción del Código civil a las siguientes bases:

BASE 1

El Código tomará por base el proyecto de 1851 en cuanto se halla contenido en éste el sentido y capital pensamiento de las instituciones civiles del derecho histórico patrio, debiendo formularse por tanto este primer cuerpo legal de nuestra codificación civil sin otro alcance y propósito que el de regularizar, aclarar y armonizar los preceptos de nuestras leyes, recoger las enseñanzas de la doctrina en la solución de las dudas suscitadas por la práctica, y atender a algunas necesidades nuevas con soluciones que tengan un fundamento científico o un precedente autorizado en legislaciones propias o extrañas, y obtenido ya común asentimiento entre nuestros jurisconsultos, o que resulten bastante justificadas, en vista de las exposiciones de principios o de método hechas en la discusión de ambos Cuerpos Colegisladores.

BASE 2

Los efectos de las leyes y de los estatutos, así como la nacionalidad, la naturalización y el reconocimiento y condiciones de existencia de las personas jurídicas, se ajustarán a los preceptos constitucionales y legales hoy vigentes, con las modificaciones precisas para descartar formalidades y prohibiciones ya desusadas, aclarando esos conceptos jurídicos universalmente admitidos en sus capitales fundamentos y fijando los necesarios, así para dar algunas bases seguras a las relaciones internacionales civiles, como para facilitar el enlace y aplicación del nuevo Código y de las legislaciones forales, en cuanto a las personas y bienes de los españoles en sus relaciones y cambios de residencia o vecindad en provincias de derecho diverso,

desberdinetan iraurarazi beharreko foru-erakundeak, gaur egun halakorik izatekotan.

7. Aurreko artikuluan xedatutakoa gorabehera, Kode Zibilak Aragoi eta Balear Uharteetan eraenduko du, forugabeko probintzietan eraentzen duen une beretik, baldin eta kode hori ez bada Aragoi eta Balear Uharteetan gaur egun indarrean dauden xedapen forudun nahiz ohiturazkoen kontrakoa.

Zaragoza, Huesca, Teruel eta Balear Uharteetako probintzia-diputazioek eta aipatu probintzietako hiriburuetakoa abokatu-bazkunek txostena egin, eta Kodegintzarako Batzorde Nagusiari entzun eta gero, Gobernuak lege-proiektua aurkeztuko die Gorteei, kode berria argitaratu eta eperik laburrenean, Gorteei proiektu hori onets dezaten; proiektu horretan barneratu behar dira Aragoi eta Balear Uharteetan iraurarazi beharreko erakunde zibilak.

Txosten berdinak bildu beharko ditu Gobernuak, foru-legeria duten gainerako probintzietan buruz.

8. Gobernuak eta batzordeak honako oinarri hauek izango dituzte kontuan, Kode Zibila idazteko:

1. OINARRIA

Kodearen oinarria 1851ko Proiektua izango da, proiektu horretan Espainiako zuzenbide historikoaren erakunde zibilei buruzko esangura eta muina azaltzen den ginoan. Hortaz, Espainiako kodegintza zibilaren lehendabiziko lege-testuak xede eta helburu zehatzak izan behar ditu, hala nola, bertako legeen manu desberdinak moldatu, argitu eta harmonizatzea; doktrinak emandako gida-lerroak biltzea, praktikan sortzen diren zalantzei irtenbidea eman ahal izateko; eta, modu berean ere, beharizan berri batzuei aurre egitea. Horretarako ematen diren konponbideek oinarri zientifikoa izan behar dute edo ondo uztartu behar dira bertako nahiz kanpoko legerietan onarturiko aurrekariekin. Gainera, konponbideok Espainiako legelarien aho bateko onarpena jaso behar dute, edo, behinik behin, behar beste justifikatuta egon behar dira, erakunde legegilekide bi-biotan printzipio nahiz metodoei buruz egindako azalpenak ikusita.

2. OINARRIA

Konstituzioaren manuei eta gaur egun indarrean dauden lege-manuei egokitu behar zaizkie lege eta estatutuen ondoreak, eta pertsona juridikoen naziokotasuna, naturalizazioa, aitortpena eta haien izateari buruzko baldintzak, betiere beharrezkoak diren aldarazpenekin. Aldarazpen horien bitartez bazter utz daitezke jadanik erabiltzen ez diren formalitate eta debekuak. Horrela, gizaki guztiak onarturiko kontzeptu juridikoak argiturik geratuko dira, euren funtsezko oinarrietan bederen, eta kontzeptu juridiko berriak finkatuko dira. Horrekin, nazioarteko harreman zibilei oinarri sendoak emango zaizkie, eta Kode Zibilaren eta foru-legerien arteko lotura eta aplikazioa erraztuko dira, espainiarrei eurei eta haien ondasunei dagozkienez. Bide horretatik,

© Lege-testu guztien itzulpena eta aurkibide analitikoak:

Eba Gaminde, Begoña Landa, Gotzon Lobera, Andres Urrutia,

Esther Urrutia eta IVAP/HAEEKo Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala

© Deustuko Unibertsitatea. Euskal Gaien Institutua

© IVAP/HAEEKo Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala

inspirándose hasta donde sea conveniente en el principio y doctrina de la personalidad de los estatutos.

BASE 3

Se establecerán en el Código dos formas de matrimonio: el canónico, que deberán contraer todos los que profesen la religión católica, y el civil, que se celebrará del modo que determine el mismo Código en armonía con lo prescrito en la Constitución del Estado.

El matrimonio canónico producirá todos los efectos civiles respecto de las personas y bienes de los cónyuges y sus descendientes, cuando se celebre en conformidad con las disposiciones de la Iglesia católica, admitidas en el Reino por la ley 13, tít. 1.º, libro 1.º, de la Novísima Recopilación.

Al acto de su celebración asistirá el Juez municipal u otro funcionario del Estado, con el solo fin de verificar la inmediata inscripción del matrimonio en el Registro civil.

BASE 4

Las relaciones jurídicas derivadas del matrimonio en cuanto a las personas y bienes de los cónyuges y de sus descendientes, paternidad y filiación, patria potestad sucesiva del marido y de la mujer sobre sus hijos no emancipados, efectos civiles del contrato y, en suma, cuantas constituyen el derecho de familia, se determinarán de conformidad con los principios esenciales en que se funda el estado legal presente, sin perjuicio de lo dispuesto en las bases 17, 18, 22 Y 25.

BASE 5

No se admitirá la investigación de la paternidad sino en los casos de delito o cuando exista escrito del padre en el que conste su voluntad indubitada de reconocer por suyo al hijo, deliberadamente expresada con ese fin, o cuando medie posesión de estado.

Se permitirá la investigación de la maternidad, y se autorizará la legitimación bajo sus dos formas de subsiguiente matrimonio y concesión Real, limitando ésta a los casos en que medie imposibilidad absoluta de realizar la primera, y reservando a terceros perjudicados el derecho de impugnar, así los reconocimientos como las legitimaciones, cuando resulten realizados fuera de las condiciones de la ley.

Se autorizará también la adopción por escritura pública, y con autorización judicial, fijándose las condiciones de edad, consentimiento y prohibiciones que se juzguen bastantes a prevenir los inconvenientes que el abuso de ese derecho pudiera traer consigo para la organización natural de la

zuzenbide desberdineko probintzietan, espainiarrek harremanak izan, eta euren bizilekua eta auzotartasuna alda ditzakete, eta, horrelakoetan, komeni da estatutuen nortasunari buruzko printzipioak eta doktrinaren irtenbideak ahalbidetzea.

3. OINARRIA

Kodean ezkontzaren bi formak ezarriko dira: ezkontza kanonikoa, katoliko guztiak egin beharrekoa; eta ezkontza zibila, kodeak berak estatuaren Konstituzioarekin bat etorritik ezartzen duen moduan egin beharrekoa.

Ezkontza kanonikoak ondore zibil guztiak sortuko ditu ezkontideei euri eta haien ondasunei begira, bai eta ondorengoei begira ere, ezkontza hori egiten bada Eliza katolikoaren xedapenekin bat etorritik; xedapen horiek erresuman onartuta daude, Bilduma Berri-berriaren 1. liburuko 1. tituluko 13. legearen aginduz.

Ezkontzeko egintza horretara, udaleko epailea edo estatuko beste funtzionarioen bat joango da, eta ezkontza Erregistro Zibilean berehala inskribatuko da, egiaztatzeko helburu hutsarekin.

4. OINARRIA

Ezkontzak berak harreman juridikoak eratorriko ditu, ezkontideei eta euren ondorengoei eta batzuen eta besteen ondasunei dagokienez. Harreman horien barruan nabarmen daitezke, besteak beste, gurasotasuna, seme-alabatasuna, senarrak eta emazteak elkarren segidan eta seme-alaba emantzipatugabeen gainean duten guraso-ahala, kontratuaren ondore zibilak eta, oro har, familia-zuzenbidea osatzen dutenak. Horiek guztiak zehaztuko dira egungo lege-egoeraren uztarri diren funtzeko printzipioekin bat etorritik, 17, 18, 22 eta 25. oinarrietan xedatutakoari kalterik egin gabe.

5. OINARRIA

Aitatasunaren ikerketa kasu jakin batzuetan besterik ez da onartuko, alegia, delitu-kasuetan eta, orobat, aitak, idazki baten bitartez eta zalantzarik gabe, bere seme-alabaren seme-alabatasuna aitortzeko borondate esanbidezkoa adierazi duenean; eta, era berean, egoera-erabaketa dagoenean.

Amatasunaren ikerketa ahalbidetu eta, horrez gain, legitimazioa baimenduko da horrek dituen forma bietan, hots, geroko ezkontza eta errege-erreginen emakida. Bigarren forma hori gerta dadin, erabat ezinezkoa izan behar da lehenengo erabiltzea. Halaber, hirugarren kaltetunei erreserbatuko zaie aitortpenak eta legitimazioak aurkaratzeko eskubidea, baldin eta aitortpen eta legitimazio horiek legean ezarritako baldintzetatik kanpo gertatu badira.

Era berean, eskritura publikoaren bidezko adopzioa baimenduko da, epailearen baimenarekin eginez gero. Eskubide horretaz abusatzeak eragozpenak ekar diezazkioke familiaren antolaketa naturalari, eta, ondorenez, eragozpen horiek saihesteko zein baldintza izan behar den zehaztuko da, batez ere,

familia.

BASE 6

Se caracterizarán y definirán los casos de ausencia y presunción de muerte, estableciendo las garantías que aseguren los derechos del ausente y de sus herederos, y que permitan en su día el disfrute de ellos por quien pudieran adquirirlos por sucesión testamentaria o legítima, sin que la presunción de muerte llegue en ningún caso a autorizar al cónyuge presente para pasar a segundas nupcias.

BASE 7

La tutela de los menores no emancipados, dementes y los declarados pródigos o en interdicción civil, se podrá deferir por testamento, por la ley o por el Consejo de Familia, y se completará con el restablecimiento en nuestro derecho de ese consejo y con la institución del pro tutor.

BASE 8

Se fijará la mayor edad en los veintitrés años para los efectos de la legislación civil, estableciendo la emancipación por matrimonio y la voluntaria por actos entre vivos a contar desde los diez y ocho años de edad en el menor.

BASE 9

El registro del estado civil comprenderá las inscripciones de nacimientos, matrimonios, reconocimientos y legitimaciones, defunciones y naturalizaciones, y estará a cargo de los Jueces municipales u otros funcionarios del orden civil en España y de los Agentes consulares o diplomáticos en el extranjero.

Las actas del Registro serán la prueba del estado civil, o sólo podrá ser suplida por otras en el caso de que no hayan existido o hubieren desaparecido los libros del Registro, no cuando ante los Tribunales se suscite contienda.

Se mantendrá la obligación, garantizada con sanción penal, de inscribir los actos o facilitar las noticias necesarias para su inscripción tan pronto como sea posible.

No se dará efecto alguno legal a las naturalizaciones mientras no aparezcan inscritas en el Registro, cualquiera que sea la prueba con que se acrediten y la fecha en que hubieren sido concedidas.

BASE 10

Se mantendrán el concepto de la propiedad y la división de las cosas, el principio de la accesión y de copropiedad con arreglo a los fundamentos capitales del derecho patrio, y se incluirán en el Código las

adin, adostasun eta debekuen inguruan.

6. OINARRIA

Absentziari eta heriotza-presuntzioei buruzko kasuak definitu, eta kasu horien ezaugarriak finkatuko dira. Aldi berean ere, zenbait berme ezarriko dira, absentearen eta beraren jaraunsean eskubideak ziurtatzeko. Horretara, eskubide horiek lupertu ahal izango ditu gerogarrenean testamentuzko oinordetza edo oinordetza legitimoaren bidez halakoak eskuratzen dituenak. Heriotza-presuntzioak ez dio inoiz ere baimenduko bertan dagoen alargunari bigarrenez ezkon dadin.

7. OINARRIA

Adingabeako emantzipatugabeak, zoroak, zarrastelkeria-adierazpena duenak edo interdikzio zibilaren mendekoak tutoretzapean jartzeko, tutoretza hori testamentu bidez, lege bidez edo Familia Kontseiluaren bidez era daiteke. Tutoretza hori osatzeko, Espainiako zuzenbidean kontseilu hori berrezarri eta protutorearen erakundeak sortuko da.

8. OINARRIA

Legeria zibilaren ondoreetarako, adin-nagusitasuna hogeita hiru urtekin eskuratuko da. Era berean, ezkontzaren ondoriozko emantzipazioa ezarri eta, borondatezko emantzipazioaren barruan, bizien arteko egintzen ondoriozkoa onartuko da, adingabeak hemezortzi urte betetzen dituen unetik.

9. OINARRIA

Egoera zibilaren erregistroak bere barruan hartuko ditu jaiotza, ezkontza, aitorten eta legitimazioei buruzko inskripzioak, bai eta heriotza eta naturalizazioei buruzkoak ere. Erregistro hori udal epaileen edo beste funtzionario batzuen ardurapean egongo da; Espainian funtzionario horiek arlo zibilekoak izan behar dira, eta atzerrian, berriz, kontsulatu eta diplomaziako agenteak izan behar dira.

Erregistroko aktek egoera zibilari buruzko frogak egingo dute. Akta horien ordez beste frogak batzuk onartzeko, ez da aktarik izan behar, edo, horrelakorik izatekotan, aktok erregistroko liburuetatik desagertu behar dira; kontrara, akten ordez ezin da beste frogarik aurkeztu, auzitegietan eztabaida sortzen denean.

Ahal bezain laster, egintzak inskribatu eta egintzen inskripziorako beharrezkoak diren berriak erraztuko dira. Aurrerantzean ere betebeharrak horri eutsiko zaio, eta betebeharrak hori zehapen penalaren bidez bermatuko da.

Naturalizazioak ez badaude erregistroan inskribaturik, naturalizazio horiei ez zaie lege-ondorerik emango, halakoak egiaztatzeko frogak eta beroriek emateko data edozein izanda ere.

10. OINARRIA

Espainiako zuzenbidearen oinarriko printzipioekin bat etorriz, indarrean diraute gauzen jabetza eta zatiketari buruzko kontzeptuak, akzesio-printzipioak eta jabeakidetzaren printzipioak. Kode Zibilaren barruan

© Lege-testu guztien itzulpena eta aurkibide analitikoak:

Eba Gaminde, Begoña Landa, Gotzon Lobera, Andres Urrutia,

Esther Urrutia eta IVAP/HAEEko Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala

© Deustuko Unibertsitatea. Euskal Gaien Institutua

© IVAP/HAEEko Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala

bases en que descansan los conceptos especiales de determinadas propiedades, como las aguas, las minas y las producciones científicas, literarias y artísticas, bajo el criterio de respetar las leyes particulares por que hoy se rigen en su sentido y disposiciones, y deducir de cada una de ellas lo que pueda estimarse como fundamento orgánico de derechos civiles y sustantivos para incluirlo en el Código.

BASE 11

La posesión se definirá en sus dos conceptos, absoluto o emanado del dominio y unido a él, Y limitado y nacido de una tendencia de la que se deducen hechos independientes y separados del dominio, manteniéndose las consecuencias de esa distinción en las formas y medios de adquirirla, estableciendo los peculiares a los bienes hereditarios, la unidad personal en la posesión fuera del caso de indivisión, y determinando los efectos en cuanto al amparo del hecho por la Autoridad pública, las presunciones a su favor, la percepción de frutos, según la naturaleza de éstos, el abono de expensas y mejoras y las condiciones a que debe ajustarse la pérdida del derecho posesorio en las diversas clases de bienes.

BASE 12

El usufructo, el uso y la habitación se definirán y regularán como limitaciones del dominio y formas de su división, regidas en primer término por el título que las constituya, y en su defecto por la ley, como supletoria a la determinación individual; se declararán los derechos del usufructuario en cuanto a la percepción de frutos, según sus clases y situación en el momento de empezar y de terminarse el usufructo, fijando los principios que pueden servir a la resolución de las principales dudas en la práctica respecto al usufructo y uso de minas, montes, plantíos y ganados, mejoras, desperfectos, obligaciones de inventario y fianza, inscripción, pago de contribuciones, defensa de sus derechos y los del propietario en juicio y fuera de él, y modos naturales y legítimos de extinguirse todos esos derechos, con sujeción todo ello a los principios y prácticas del derecho de Castilla, modificado en algunos importantes extremos por los principios de la publicidad y de la inscripción contenidos en la legislación hipotecaria novísima.

BASE 13

El título de las servidumbres contendrá su clasificación y división en continuas y discontinuas, positivas y negativas, aparentes y no aparentes por

© Lege-testu guztien itzulpena eta aurkibide analitikoak:

Eba Gaminde, Begoña Landa, Gotzon Lobera, Andres Urrutia,
Esther Urrutia eta IVAP/HAEEko Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala

© Deustuko Unibertsitatea. Euskal Gaien Institutua

© IVAP/HAEEko Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala

sartuko dira, orobat, jabetza zehatz batzuei buruzko kontzeptu berezien oinarriak. Horrelako jabetzak dira, besteak beste, urak, meatzeak, ekoizpen zientifikoak, literaturako ekoizpenak eta ekoizpen artistikoak. Egungo egunean, horien esangura eta xedapenei aplikatu behar zaie lege bereziak errespetatzeko irizpidea. Gainera, jabetza berezi bakoitzetik atera behar da eskubide zibil eta substantiboentzat oinarri organikoa izan daitekeena, oinarri hori kodearen barruan sartu behar baita.

11. OINARRIA

Edukitzeko bi moduak definituko dira. Lehenengo modua erabatekoa da, jabariak eratortzen du eta jabariari lotuta dago. Bigarrena, berriz, mugatua da, eta joera jakin batek erakartzen du; joera horrek ondoriozta ditzake jabariari begira independente diren eta banandurik dauden egitateak. Bereizketa horren ondorioei eutsi egingo zaie, edukitzeko era eta bideei dagokienez ere bai. Jarauntsiko ondasunetan, ostera, bide bereziak ezarriko dira. Bestalde, edukitzaren arloan pertsona-batasuna errespetatuko da, indibiso-kasuetan izan ezik. Horrez gain, edukitzaren ondoreak zehaztu eta, horretarako, aintzakotzat hartuko dira herri-agintaritzak edukitzari zor dion babesa, edukitzaren inguruko presuntzioak, fruituak euren izaeraren arabera jasotzea, gas tu eta hobekuntzak ordaintzea eta, ildo beretik, edukitzaren eskubidearen galerari aplikatu behar zaizkion baldintzak, ondasun-mota desberdina denean.

12. OINARRIA

Gozamena, erabiltzea eta biztantzea definitu eta arautuko dira jabariaren mugapen gisa. Horiek zatitzeko, lehenengo eta behin, titulu eratzailera aplikatu behar da, eta, halakorik izan ezean, legea, hori borondatezko zehaztapenaren ordezkua baita. Modu berean ere, gozamedunak fruituak jasotzeko orduan dituen eskubideak adieraziko dira, fruitu-moten arabera, eta gozamena hasi eta bukatzeko unean fruitu horien egoera zein den kontuan hartuz. Ildo beretik, printzipio bereziak ezarriko dira praktikan sortzen diren zalantza nagusiak konpontzeko, besteak beste, honakoak konpontzeko: gozamena bera, eta meatze, mendi, landaketa eta abelburuen erabilera; hobekuntza; narriadura; inbentarioa egin eta fidantza emateko betebeharrak; inskripzioa; kontribuzioen ordainketa; epaiketari nahiz epaiketarik kanpo gozamedunaren eta jabearen eskubideak babestea; eta, era berean, eskubide horiek guztiak azkentzeko modu natural eta legítimoak. Arazo horiek guztiak Gaztelako zuzenbidearen printzipio eta egineren menpe geratuko dira. Zernahi gisaz, zuzenbide hori, gai garrantzitsu batzuetan, aldarazi egingo da, publikitate- eta inskripzio-printzipioen ondorioz, printzipio horiek hipoteka-legeria berri-berrian jaso baitira.

13. OINARRIA

Zortasunei buruzko tituluan, sailkapena eta zatiketa hauek agertuko dira: zortasunak egikaritu eta lupertzeko baldintzen arabera, etengabekoak eta

sus condiciones de ejercicio y disfrute, legales y voluntarias por el origen de su constitución, respetándose las doctrinas hoy establecidas en cuanto a los modos de adquirirlas, derechos y obligaciones de los propietarios de los predios dominantes y sirvientes y modo de extinguirlas.

Se definirán también en capítulos especiales las principales servidumbres fijadas por la ley en materia de aguas, en el régimen de la propiedad rústica y urbana, y se procurará, a tenor de lo establecido en la Base I.^a, la incorporación al Código del mayor número posible de disposiciones de las legislaciones de Aragón, Baleares, Cataluña, Galicia, Navarra y Provincias Vascas.

BASE 14

Como uno de los medios de adquirir, se definirá la ocupación, regulando los derechos sobre los animales domésticos, hallazgo casual de tesoro y apropiación de las cosas muebles abandonadas.

Les servirán de complemento las leyes especiales de Caza y Pesca, haciéndose referencia expresa a ellas en el Código.

BASE 15

El tratado de las sucesiones se ajustará en sus principios capitales a los acuerdos que la Comisión general de Codificación, reunida en pleno con asistencia de los Sres. Vocales correspondientes y de los Sres. Senadores y Diputados, adoptó en las reuniones celebradas en noviembre de 1882, y con arreglo a ellos se mantendrá en su esencia la legislación vigente sobre los testamentos en general, su forma y solemnidades, sus diferentes clases de abierto, cerrado, militar, marítimo y hecho en país extranjero, añadiendo el ológrafo, así como todo lo relativo a la capacidad para disponer y adquirir por testamento, a la institución de heredero, la desheredación, las mandas y legados, la institución condicional o a término, los albaceas y la revocación o ineficacia de las disposiciones testamentarias, ordenando y metodizando lo existente, y completándolo con cuanto tienda a asegurar la verdad y facilidad de expresión de las últimas voluntades.

BASE 16

Materia de las reformas indicadas serán en primer término las sustituciones fideicomisarias, que no pasarán ni aun en la línea directa de la segunda generación, a no ser que se hagan en favor de personas que todas vivan al tiempo del fallecimiento del testador.

El haber hereditario se distribuirá en tres partes iguales: una que constituirá la legítima de los hijos, otra que podrá asignar el padre a su arbitrio como mejora entre los mismos, y otra de que podrá disponer libremente.

etenkakoak, positiboak eta negatiboak, agerikoak direnak eta ez direnak; zortasunak eratzeko jatorriaren arabera, legezkoak eta borondatezkoak. Gaur egungo doktrinak ere errespetatu egingo dira, beroriek jorratzen badituzte zortasunak eskuratzeko moduak, lur nagusi eta zortasunpeko lurren jabeek dituzten eskubide eta betebeharrak, eta zortasunak azkentzeko modua.

Halaber, kapitulu berezietan definituko dira legeak uren arloan eta landa- nahiz hiri-jabetzaren arloan finkatu dituen zortasun nagusiak. Lehenengo oinarrian ezarritakoaren ariora, ahaleginak egingo dira kodearen barruan Aragoi, Balear Uharteen, Katalunia, Galizia, Nafarroa eta probintzia euskaldunen xedapenak ahalik eta gehien barruratzeko.

14. OINARRIA

Eskuratzeko bide desberdinen artean, okupazioa definituko da, eta horrekin batera arautuko dira etxeko animalien gaineko eskubideak, altxorra ustekabean aurkitzea eta bertan behera utzitako gauzez jabetzea.

Horien osagarri gisa, ehiza eta arrantzari buruzko lege bereziak aplikatuko dira, eta kodeak berak beren beregi lege horiek aipatuko ditu.

15. OINARRIA

Oinordetzei buruzko atala, oinarritzko printzipioetan behinik behin, Kodegintzarako Batzorde Nagusian hartutako erabakiei egokituko zaie. Erabaki horiek osoko bilkuran hartu ziren, eta, zehatzago, 1882ko azaroan egindako bileretan; bertara mahaikide egokiak, eta diputatu eta senatoreak joan ziren. Erabakion aginduz, oinarrian indarreko legeriari eutsiko zaio, legeria horrek jorratzen baditu testamentuak orokorrean, horien forma eta solemnitateak, testamentu-motak --testamentu olografoaz landa, testamentu irekia, itxia, militarra, itsas testamentua eta atzerrian egindakoa--, testamentu bidez xedatu eta eskuratzeko gaitasuna, jaraunlea izendatzea, jaraungabetzea, agintza eta legatuak, baldintzapeko edo epe-mugako izendapena, albazeak, bai eta testamentuko xedapenen ezeztapena edo eragingabetasuna ere. Indarrean dagoen hori antolatuz, metodopean jarri eta osatu egingo da, egia ziurtatu eta azken nahiak ahalik eta errazen adierazi ahal izateko.

16. OINARRIA

Eraldaketa iragarri horien gai izango dira, lehenengo lekuan, fideikomisozko ordezenak. Zuzeneko lerroan, ordezen horiek bigarren belaunaldiraino besterik ez dute iraungo, salbu eta testamentugilea hildakoa ordezenon onuradun guztiak bizirik daudenean.

Jarauntsiko hartzekoa hiru zati berdinetan banatuko da: zati horietako bat seme-alaben senipartea izango da; beste bat gurasoak banatuko du hobekuntza gisa seme-alaben artean, berak nahi duen moduan; eta bestea askatasunez xedatu ahal izango da.

La mitad de la herencia en propiedad adjudicada por la proximidad de parentesco, y sin perjuicio de las reservas, constituirá, en defecto de descendientes legítimos, la legítima de los ascendientes, quienes podrán optar entre ésta y los alimentos.

Tendrán los hijos naturales reconocidos derecho a una porción hereditaria, que si concurren con hijos legítimos nunca podrá exceder de la mitad de lo que por su legítima corresponda a cada uno de éstos; pero podrá aumentarse esta porción cuando sólo quedaren ascendientes.

BASE 17

Se establecerá a favor del viudo o viuda el usufructo que algunas de las legislaciones especiales le conceden, pero limitándolo a una cuota igual a lo que por su legítima hubiera de percibir cada uno de los hijos, si los hubiere, y determinando los casos en que ha de cesar el usufructo.

BASE 18

A la sucesión intestada serán llamados: 1.º Los descendientes.

2.º Los ascendientes.

3.º Los hijos naturales.

4.º Los hermanos é hijos de éstos.

5.º El cónyuge viudo.

No pasará esta sucesión del sexto grado en la línea colateral.

Desaparecerá la diferencia que nuestra legislación establece respecto a los hijos naturales entre el padre y la madre, dándoseles igual derecho en la sucesión intestada de uno y otro.

Sustituirán al Estado en esta sucesión cuando a ella fuere llamado los establecimientos de Beneficencia é instrucción gratuita del domicilio del testador; en su defecto, los de la provincia; a falta de unos y otros, los generales.

Respecto de las reservas, el derecho de acrecer, la aceptación y repudiación de la herencia, el beneficio de inventario, la colación y partición, y el pago de las deudas hereditarias, se desenvolverán con la mayor precisión posible las doctrinas de la legislación vigente, explicadas y completadas por la jurisprudencia.

BASE 19

La naturaleza y efectos de las obligaciones serán explicados con aquella generalidad que corresponda a una relación jurídica cuyos orígenes son muy diversos.

Se mantendrá el concepto histórico de la mancomunidad, resolviendo por principios generales las cuestiones que nacen de la solidaridad de

Ondorengo legitimorik izan ezean, jarauntsiaren erdiaren gaineko jabetza adjudikatuko da ahaideen arteko hurbiltasunaren arabera, erreserbei kalterik egin gabe. Jarauntsiaren erdi horrek aurrekoen senipartea osatuko du; aurrekoek senipartearen eta mantenuaren artean aukeratu ahal izango dute.

Odoleko seme-alaben seme-alabatasuna aitortu bada, seme-alaba horiek jarauntsi-zati baten gaineko eskubidea izango dute; odoleko horiek seme-alaba legitimoekin pilatzen badira jarauntsian, zatia ezin da sekula ere izan seme edo alaba legitimo bakoitzari seniparte gisa dagokionaren erdia baino handiagoa. Zernahi den ere, zati hori zabal daiteke, aurrekoak baino ez badira geratzen.

17. OINARRIA

Alargunaren aldeko gozamina ezarriko da, legeria berezi batzuetan egun gertatzen den bezala. Gozamen horrek, alabaina, muga bat izango du, gozamina ezin delako izan seme edo alaba bakoitzak, halakorik izatekotan, seniparte gisa jaso behar duen kuota baino handiagoa. Era berean, gozamina amaitzeko kasuak zehaztuko dira.

18. OINARRIA

Abintestato oinordetzara deituko zaie: 1. Ondorengoei.

2. Aurrekoei.

3. Odoleko seme-alabei.

4. Neba-arrebei eta horien seme-alabei.

5. Alargunari.

Alboko lerroan, oinordetza hori ezin da izan seigarren gradutik gorakoa.

Espainiako legeriak aita eta amaren artean odoleko seme-alabei begira ezarri duen desberdintasuna ezabatu egingo da, seme-alaba horiei aita eta amaren abintestato jarauntsietan eskubide berdinak emanez.

Oinordetza horretan estatuari dei tu behar zaionean, horren orde, testamentugilearen egoitzako establezimenduei deituko zaie, establezimenduon helburua ongintza nahiz dohaineko heziketa bada; bertan halakorik izan ezean, probintziakoei; eta, batzuk eta besteak izan ezean, estatukoei.

Erreserbak, gehiagotzeko eskubidea, jarauntsia onartu eta arbuiatzea, inbentario-onura, kolazioa eta banaketa, eta jarauntsiko zorren ordainketa ahalik eta zehatzen garatuko dira, indarreko legeriaren doktrinak gogoan izanik, jurisprudentiak doktrina horiek azaldu eta osatu dituen moduan.

19. OINARRIA

Betebeharren izaera eta ondoreak orokorrean azalduko dira, azalpen orokorra bat badator jatorri desberdina duten harreman juridikoeekin.

Mankomunitatearen kontzeptu historikoak indarrean iraungo du, eta printzipio orokorren bitartez konponduko dira hartzekodun eta zordunen arteko

acreedores y deudores, así cuando el objeto de la obligación es una cosa divisible, como cuando es indivisible, y fijando con precisión los efectos del vínculo legal en las distintas especies de obligaciones, alternativas, condicionales, a plazo y con cláusula penal.

Se simplificarán los modos de extinguirse las obligaciones, reduciéndolos a aquellos que tienen esencia diferente, y sometiendo los demás a las doctrinas admitidas, respecto de los que como elementos entran en su composición.

Se fijarán, en fin, principios generales sobre la prueba de las obligaciones, cuidando de armonizar esta parte del Código con las disposiciones de la moderna ley de Enjuiciamiento civil, respetando los preceptos formales de la legislación notarial vigente, y fijando un máximo, pasado el cual, toda obligación de dar o de restituir, de constitución de derechos, de arriendo de obras o de prestación de servicios, habrá de constar por escrito, para que pueda pedirse en juicio su cumplimiento o ejecución.

BASE 20

Los contratos, como fuente de las obligaciones, serán considerados como meros títulos de adquirir en cuanto tengan por objeto la traslación de dominio o de cualquier otro derecho a él semejante, y continuarán sometidos al principio de que la simple coincidencia de voluntades entre los contratantes establece el vínculo, aun en aquellos casos en que se exigen solemnidades determinadas para la transmisión de las cosas, o el otorgamiento de escritura a los efectos expresados en la base precedente.

Igualmente se cuidará de fijar bien las condiciones del consentimiento, así en cuanto a la capacidad, como en cuanto a la libertad de los que le presten, estableciendo los principios consagrados por las legislaciones modernas sobre la naturaleza y el objeto de las convenciones, su causa, forma é interpretación, y sobre los motivos que las anulan y rescinden.

BASE 21

Se mantendrán el concepto de los cuasi contratos determinando las responsabilidades que puedan surgir de los distintos hechos voluntarios que les dan causa, conforme a los altos principios de justicia en que descansaba la doctrina del antiguo derecho, unánimemente seguido por los modernos Códigos, y se fijarán los efectos de la culpa y negligencia, que no constituyan delito ni falta, aun respecto de aquellos bajo cuyo cuidado o dependencia estuvieron los culpables o negligentes, siempre que sobrevenga perjuicio a tercera persona.

Las obligaciones procedentes de delito o falta quedarán sometidas a las disposiciones del Código

solidaritatetik sortzen diren arazoak, bai betebeharraren objektua gauza zatigarria denean, baita gauza zatiezina denean ere. Ildo beretik, zehatz-mehatz finkatuko dira betebeharrak desberdinek -hautabidezkoek, baldintzapekoek, eperakoek eta zigor-klausuladunek- sortzen duten lege-loturaren ondoreak.

Gainera, betebeharrak azkentzeko moduak erraztuko dira, oinarri desberdina dutenak iraunaraziz. Gainerako moduak doktrina onartuen menpe geratuko dira, horiek osatzen dituzten osagaiei dagozkienez.

Azken buruan, betebeharren frogari buruzko printzipio orokorrak finkatuko dira, eta, hori egitean, kodearen zati hori harmonizatu behar da Prozedura Zibilaren Lege modernoak ezarritako xedapenekin. Orobat, indarreko notario-legerian ezarritako manu formalak errespetatuko dira. Gehienekoa ezarriko da, eta, gehieneko horretatik gora, idatziz jaso beharko dira zerbait eman edo itzultzeko betebeharrak, eskubideak eratzekoak, obra-errentamenduari buruzkoak eta zerbitzuak egitekoak. Rala eginez gero, betebeharraren guztien betetzea edo betearazpena epaiketan eskatu ahal izango da.

20. OINARRIA

Kontratuak, betebeharren iturri diren aldetik, eskuratzeko titulu hutsak izango dira, euren helburua denean jabaria edo horren antzeko beste edozein eskubide eskualdatzea. Hori dela eta, kontratuok honako printzipio honen menpe iraungo dute: kontratugileen borondateek bat egiten dutenean, euren arteko lotura sortzen da, baita gauzak eskualdatzeko solemnitate jakin batzuk bete behar direnean ere; solemnitate horien artean sar daiteke, aurreko oinarrian adierazitako ondoreak lortzeko, eskritura egilestea.

El primero de estos sistemas daría lugar a un casuismo indefinido y tal vez deficiente; el segundo respondería mejor a su objeto; pero, sobre ser de difícil ejecución, no daría un resultado tan comprensivo, que excluyera en absoluto la necesidad de reglas especiales para casos determinados.

Era, pues, necesario determinar cuáles son las variaciones de ley que perjudican derechos anteriormente adquiridos y que no deben, por tanto, aplicarse con efecto retroactivo.

Para ello, no basta decir que son aquellas disposiciones legales que privan de la posesión actual de algún beneficio, interés o acción jurídica; pues si la existencia, efectividad o extensión del

eransketa bat egin dio artikuluari, foroak artikuluko horretatik kanpo geratzen direla adieraziz.

Senatari eta diputatu jaun batzuek zenbait xedapen iragankorren falta nabaritu zuten kodean; xedapen horien helburua izango zatekeen erregulartasunez eta justiziaz zehaztea antzinako legeriatik legeria berrira eman beharreko pausoa; horrela, antzinako legeria horrek ez zukeen atzeraeraginezko ondorenik izango, eta errespetatu egingo ziratekeen aurreko araubidearen menpe lege bidez eskuratutako eskubideak.

Hizlari horien oharbidea oinarriduna da oso.

Izan ere, ez da nahiko 1976. artikulua hurrengo esatea: legerian izandako aldaketek kalte egiten badiete eskuratutako eskubideei, ez dute atzeraeraginezko ondorenik izango. Gaur egun eskubide horiek definitu eta zehaztea da, hain zuzen ere, legegintza-zientziak dituen arazoetatik zailenetarikoa.

Beharbada, egokiagoa izango zatekeen hori lege bereizi batean egitea. Horixe egin zuten Italian eta beste herri batzuetan ere bai; horietan, xedapen iragankorrak eman zituen, bai Botere Legegileak zuzenean, bai Gobernua konstituzio-baimenarekin.

Espanian lege hori ez da eman, eta, are gehiago, berori prestatzeko lanak hasi ere ez dira egin. Atalak, nolahi ere, kodean egin behar ditu bere ustez beharrezko eta komenigarri diren zuzenketa eta eransketak, bi erakunde legegilekideetan izandako eztabaidak aintzakotzat harturik. Hori dela eta, Atalak uste du bere eginbeharra del a erregela zehatz batzuk ematea; horien bitartez, xedapen berriak aplikatu ahal izango dira, xedapenok, neurri batean behintzat, aurretiaz eraturako zuzenbidea aldatzen duten heinean.

Lan zail hori burutzeko, bi sistema erabil daitezke: bata, aldaketa horiek guztiak xehetasunez aipatzea, kasuan-kasuan aplikatu behar den zuzenbidea aipatuz; eta, bestea, erregela orokorrak ezartzea, hau da, mota horretako kasu guztietan aplikatu daitezkeen erregela orokorrak ezartzea.

Sistema horietatik lehenbizikoan, kasukeria zehaztugabea eta, agian, akastuna ere gerta daiteke. Bigarrena, aldiz, hobeto uztartzen zaio sistemaren helburuari berari; hala ere, horren betearazpena zaila izan daiteke, eta ezin du emaitza oro hartailerik ekarri, hots, ezin du erabat baztertu kasu zehatzentzat erregela bereziak emateko beharizana.

Hortaz, lege-aldaketa batzuek kalte egiten badiete aurretiaz eskuratutako eskubideei, eta, ondorenez, lege horiek ez badira aplikatu behar atzeraeragintasunez, aldaketok identifikatzea nahitaezko gertatzen da.

Horretarako, ez da nahiko halako lege-xedapenen artean sartzea oraingo onura, interes edo akzio juridikoren bat galtzea dakarten guztiak. Eskubidearen izatea, eragingarritasuna edo

derecho dependen de eventualidades independientes de la voluntad del que lo posee, podrá éste tener una esperanza, pero no un verdadero derecho adquirido.

Por eso los herederos legítimos y los instituidos, así como los legatarios de las personas que viven, no tienen derecho alguno adquirido hasta la muerte de éstas, porque la existencia del que en lo futuro podrán disfrutar, depende, ya de la eventualidad de su propia muerte, ya de las vicisitudes de la fortuna o de la libre y variable voluntad de los testadores.

Fundada en estas consideraciones, la Comisión, que estima peligrosa la definición abstracta de los derechos adquiridos, ha preferido desenvolver las doctrinas más comúnmente admitidas en algunas prescripciones generales y en una serie de reglas concretas, que puedan ofrecer solución a los casos más frecuentes y servir de criterio en todos los análogos.

Lo primero que debía resolver era el punto de partida de los derechos, a fin de determinar cuáles quedaban al amparo de la legislación antigua y cuáles sometidos a la nueva.

Y como todo derecho nace necesariamente de un hecho voluntario o independiente de la humana voluntad, la fecha de este hecho, que puede ser anterior o posterior a la promulgación del Código, es la que debe determinar la legislación que ha de aplicarse al derecho que de aquel hecho naciera.

Ni es necesario que el derecho originado por un hecho ocurrido bajo la legislación anterior se halle en ejercicio para que merezca respeto, pues si existía legítimamente según la ley bajo la cual tuvo origen, si dependía solamente de la voluntad del que lo poseyera ponerlo o no en ejercicio, es un derecho tan adquirido como el que hubiera ya producido o estuviera produciendo su debido efecto.

Pero si se trata de un derecho nuevo, declarado por primera vez en el Código, y no reconocido por la legislación anterior, deberá regirse por el mismo Código, aunque el hecho que lo origine hubiera tenido lugar bajo aquella legislación, a menos que perjudique a otro derecho adquirido bajo la misma; porque en este caso es más digno de respeto el que va a sufrir el daño que el que va a recibir un beneficio gratuito.

Establecido este principio en la regla 1.^a, no se podrá hacer novedad alguna en el estado legal de las madres que, siendo viudas y ejerciendo la patria potestad, hubiesen contraído nuevo matrimonio

hedadura ez bada titularraren borondatearen araberakoa, titular horrek igurikimena izan dezake, baina ez du benetako eskubiderik eskuratu.

Horregatik, bizirik dauden pertsonen jaraunse legitimoek eta izendatutako jaraunselek, baita legatu-hartzaileek ere, ez dute inolako eskubiderik eskuratzen, harako pertsonak hil arte. Gerogarrenean zerbait eskuratzea gertakizun desberdinen menpe geratzen da, dela harako pertsonen heriotzaren menpe, dela euren aberastasunak dituen gorabeheren menpe, del a testamentugileen borondate aske eta aldakorren menpe ere.

Oharbidetarik oinarri moduan hartuz, batzordeak arriskutsutzat jo du eskuratutako eskubideei buruzko definizio abstraktua. Hori dela eta, batzordeak nahiago izan du gehiengoak onartzen dituen doktrinei eustea, agindu orokor batzuk onartu eta erregela zehatzak ezarri; azken horiek kasurik ohikoenei aurre egiteko balio izango dute, eta horien antzeko kasuetan ere irizpide gisa erabili ahal izango dira.

Konpondu beharreko lehenengo arazoa da eskubideen abiapuntua zehaztea, antzinako legeriaren menpe zein eskubide geratzen den eta legeria berriaren menpe, berriz, zein geratzen den jakiteko.

Eskubide oro sortzen da, nahitaez, gizakiaren borondatezko egitate baten ondorioz, edo, bestela, borondatek kanpoko egitate baten ondorioz; egitate horren data kodea aldarrikatu aurrekoa nahiz ondokoa izan daiteke. Data horrek zehaztuko du zein legeria aplikatu behar zaion harako egitateak eratoritzen duen eskubideari.

Eskubidea aurretiazko legeriaren menpeko egitate baten ondorioz sortu bada ere, eskubide hori errespetatua izan dadin ez da beharrezkoa berri legeria horren menpe egikaritzen hastea. Eskubide horrek izate legitimoa du bera sortzean indarrean dagoen legeriarekin bat etorri, eta titularraren borondatearen araberakoa da eskubide hori egikaritzen hastea ala ez hastea. Hori dela eta, eskubide hori eskuratuta dago, jadanik eragingarritasuna sortu duen edo sortzen ari den beste edozein eskubide bezala.

Dena den, eskubide berria izanez gero, hau da, kodean lehenengoz ezartzen den eskubidea izanez gero, eta aurretiazko legeriak ez badu halakorik aitortu, eskubide horri kodea bera aplikatu behar zaio, nahiz eta eskubide hori sorrarazi duen egitatea aurretiazko legeriaren menpe sortu. Salbuespena da eskubide horrek legeria berberaren menpeko beste eskubide bati kalte egitea; halakoetan, begirune handiagoa zor zaio kalteak izango dituen eskubideari, dohaineko onura jasoko duenari baino.

Behin 1. erregelak printzipio hori ezarri eta gero, ezin da inolako berrikuntzarik egin ama direnen lege-egoeraren gainean, baldin eta, ama horiek alargun izan eta guraso-ahala egikaritzen dihardutela, berriz

antes de regir el Código, aunque éste prive de aquel derecho a las madres viudas que se casen después.

Por igual razón, las incapacidades para heredar, así absolutas como relativas, deberán calificarse con arreglo a la legislación vigente a la muerte del testador o causante de la herencia.

Por idéntico motivo y conforme a la misma regla 1.^a, no deberá entenderse que han perdido el beneficio de la restitución in integrum las personas que lo tuvieron por la legislación anterior, cuando el hecho que haya ocasionado el perjuicio que deba repararse hubiera tenido lugar bajo aquel régimen; y sólo cuando hubiese ocurrido después, deberán aplicarse las disposiciones del capítulo 5.º, título 2.º, libro IV del Código.

De la misma regla 1.^a emana la 7.^a, que no permite a los padres, madres y abuelos retirar las fianzas que tengan constituidas por la curatela que se hallen ejerciendo de sus descendientes.

Esta garantía es un derecho adquirido por los menores e incapacitados, del cual no se les puede privar sin injusticia, aunque la nueva ley dispense para lo sucesivo de la obligación de afianzar a las personas anteriormente nombradas, cuando las llama a la tutela de sus descendientes.

De esta regla general se derivan otras varias, que la Sección ha consignado también, aunque sea por vía de ejemplo.

Así, pues, conforme a la regla 2.^a, los actos y contratos celebrados bajo el régimen de la legislación anterior, que fueran válidos según ella, deben serlo también después de promulgado el Código, aunque con las limitaciones, en cuanto a su ejecución, establecidas en las disposiciones transitorias.

Por eso deben valer los testamentos otorgados bajo aquella legislación con arreglo a la misma, estén o no otorgados en forma autorizada después.

Por eso serán válidos, aunque el Código no los permite, siempre que procedan del tiempo en que regían las leyes que los autorizaban, los testamentos mancomunados, los poderes para testar, las memorias testamentarias, las cláusulas llamadas ad cautelam, y los fideicomisos en que el testador encarga al fiduciario dar a sus bienes un destino desconocido.

Lo que no podrá hacerse es alterarlos, ni modificarlos en manera alguna después de regir el Código, sino testando con arreglo al mismo; porque lo que pudo hacerse legítimamente bajo el régimen anterior, no es lícito repetirlo bajo el nuevo régimen.

Por efecto de la misma regla 2: no podrá alterarse el

ezkondu badira kodea indarrean jarri baino lehen; kodea indarrean jarri eta gero ezkontzen diren ama alargunei, ostera, kodeak berak guraso-ahala kentzen die.

Arrazoi bera dela bide, testamentugilea edo jarauntsiaren kausatzailea hiltzean indarrean dagoen legeriaren arabera kalifikatu behar dira jaraunse izateko ezgaitasun erabateko nahiz erlatiboak.

Zio berbera dela medio, eta 1. erregela horrekin bat etorritz, ezin da ulertu in integrum berreskuraketaren onura galdu dutenik aurretiazko legeriaren arabera onura hori lortu zuten pertsonak, baldin eta konpondu beharreko galera zein egitatek ekarri eta egitate hori harako araubidearen menpe gertatu bada. Egitate hori geroago gertatu bada, ostera, kodearen IV. liburuko 2. tituluaren 5. kapituluko xedapenak aplikatu behar dira.

Modu berean ere, 1. erregela horrek ondorioztatzen du 7.a. Zazpigarren horri helduta, aita, ama eta aitona-amonek ezin dituzte kendu kuradoretzaren ondorioz eraturako fidantzak, kuradoretza horren egikaritzea badute euren ondorengoen gainean.

Berme hori adingabe eta ezgaituek eskuratutako eskubidea da, eta, bidegabekeriarik egin gabe, ezin zaie eskubide hori kendu. Dena den, aurrerantzean lege berriak fidantza emateko betebeharra kentzen die lehen aipaturako pertsonari, horiei euren ondorengoen tutore izateko deitzen zaienetan.

Erregela orokor horretatik beste batzuk ateratzen dira, eta Atalak horiek ere jaso ditu, adibide gisa besterik ez bada ere.

Horrela, 2. erregelarekin bat etorritz, aurretiazko legeriaren araubidepean burututako egintza eta kontratuak baliozkoak badira legeria horren arabera, baliozkoak izan behar dira, era berean, kodea aldarrikatu eta gero, betiere xedapen iragankorretan halako egintza eta kontratuak betearazteko ezartzen diren mugekin.

Hori dela eta, baliozkoak izan behar dira harako legeriaren menpe eta beraren arabera egindako testamentuak, gerogarrenean modu kautoan egiletsi zein egiletsi ez.

Horregatik, nahiz eta kodeak onartu ez, testamentu mankomunatuak, testamentua egiteko ahalordeak, testamentuko memoriak eta ad cautelam deituriko klausulak baliozkoak dira, baldin eta horiek egin badira halakoak baimentzen zizutzen legeak indarrean zeudenean; gauza bera esan daiteke fideikomisoen inguruan, horietan testamentugileak fiduziarioari agintzen badio bere ondasunei destino ezezaguna emateko.

Hala ere, kodea indarrean jarri eta gero, ezin dira halakoak aldatu, ezta aldarazi ere, kodearen arabera beste testamentu bat egiten ez bada; izan ere, aurretiazko araubidearen menpe lege bidez egin zitekeena ez da zilegi araubide berriaren menpe errepikatzea.

2. erregela horren ondorenez, ezin da aldatu

estado legal en que se hallen los que, por pacto anterior a la promulgación del Código, estén dando o recibiendo alimentos; ni el hijo adoptado bajo la legislación anterior habrá perdido su derecho a heredar abintestato al padre adoptante, aunque el Código no reconozca este derecho a los adoptados después.

En el mismo caso se hallan las reglas que determinan la colación de las dotes y las donaciones de cualquier especie otorgadas bajo el régimen anterior, en todo aquello en que difieran de las consignadas en el Código.

También es consecuencia de la misma regla 2.ª la 6.ª, que permite al padre continuar disfrutando los derechos que se haya reservado sobre los bienes adventicios del hijo, a quien hubiese emancipado con esta condición.

Todos estos derechos, como originados de pactos o convenios celebrados bajo la legislación precedente, son dignos del mayor respeto, aunque el Código no los reconozca o los estime de modo diverso.

En el mismo caso se hallarán cualesquiera otros derechos nacidos de contratos lícitos en su tiempo, aunque no sean permitidos después.

Por lo mismo que deben respetarse y surtir su efecto los derechos nacidos de hechos pasados bajo la legislación anterior, los que, según ésta, no producían penalidad civil o pérdida de derechos y se ejecutaron en aquella época, no deberán producirla, aunque el Código después la establezca.

En este caso podrán hallarse los matrimonios contraídos antes, sin la licencia o el consejo de quien corresponda.

Pero si es justo respetar los derechos adquiridos bajo la legislación anterior, aunque no hayan sido ejercitados, ninguna consideración de justicia exige que su ejercicio posterior, su duración y los procedimientos para hacerlos valer, se eximan de los preceptos del Código.

Todas estas disposiciones tienen carácter adjetivo, y sabido es que las leyes de esta especie pueden tener efecto retroactivo.

Así, pues, según la regla 4.ª, los derechos adquiridos y no ejercitados todavía cuando el Código empezó a regir, deberán hacerse valer por los procedimientos en el mismo establecidos, y sólo cuando éstos se hallen pendientes en dicha época, podrán optar los interesados por ellos o por los nuevos.

Consecuencia es también de esta regla la 8.ª, que mantiene en su cargo a los tutores y curadores

mantenua eman edo jasotzen ari diren pertsonen lege-egoera, egoera hori sortu bada kodea aldarrikatu baino lehenagoko itun baten bidez. Halaber, aurreko legeriaren menpe adoptaturiko seme edo alabak ez du galduko guraso adopzio-hartzailearen abintestato jaraunsea izateko eskubidea, nahiz eta gerogarrenean adoptatutakoiei kodeak halako eskubiderik aitortu ez.

Aurretiazko araubidearen menpe egindako ezkonsari eta dohaintza-mota guztiak kolazionatzeko ere, aurretiazko erregelak aplikatu behar dira, kodeak jasotzen dituen horietatik aldendu arren.

Ildo beretik, 2. erregelaren ondorioa da 6.a ere bai. Azken horri helduta, gurasoak semea edo alaba emantzipatu badu, eta hori egitean bere buruarentzat erreserbatu baditu seme edo alaba horrek dituen ondasun adbertzioen gaineko eskubideak, eskubideok dauden-daudenean iraungo dute.

Eskubide horiek guztiak sortu dira aurretiazko legeriaren menpe egindako itun edo hitzarmenen ondorioz. Horregatik, errespetu osoa zor zaie, nahiz eta kodeak halakorik aitortu ez edo beste modu batera aitortu.

Egoera berean izango dira beste eskubide batzuk ere, horiek sortu badira euren garaian zilegi ziren kontratuetatik, nahiz eta gero halako kontraturik onartu ez.

Arrazoi bera dela medio, aurretiazko legeriaren menpe gertaturiko egitateetatik eskubideak sortu badira, eskubide horiek errespetatu behar dira, eta euren ondoreak ekarri behar dituzte. Modu berean ere, aurretiazko legeriaren arabera zigor zibilik edo eskubide-galerarik ekartzen ez zutenek ez dute orain ere halakorik ekarri behar, garai hartan betearazi izan badira, nahiz eta kodeak gero harakoa ezarri.

Kasu horretan izan daitezke, besteak beste, pertsona egokiaren lizentzia edo aholkurik gabe egindako ezkontzak.

Hortaz, zuzena da aurretiazko legeriaren menpe eskuratutako eskubideak errespetatzea, nahiz eta eskubide horiek egikaritu gabe egon. Hala eta guztiz ere, ez dago justiziaren eskakizunen artean halako eskubideen geroko egikaritzea, iraupena eta horiek baliarazteko prozedurak kodearen manuetatik kanpo geratzea.

Xedapen horiek guztiak prozedurari buruzkoak dira, eta jakinekua da mota horretako legeak atzeraeraginezkoak izan daitezkeela.

Horretara, 4. erregelaren arabera, eskuratutako eskubideak oraindik ez badira egikaritu kodea indarrean jartzean, eskubide horiek baliarazteko erabili behar dira kodean bertan ezarritako prozedurak; baina prozedura horiek bukatzeke badaude garai horretan, interesdunei dagokie halakoen eta prozedura berrien artean aukeratzea.

Erregela berberaren ondorioa da 8.a ere. Azken horrek dioenez, karguari euts diezaiokete kodea

nombrados antes de regir el código y a los poseedores y administradores interinos de bienes de ausentes, pero sometiéndolos, en cuanto a su ejercicio, a la nueva legislación.

También emana de la misma regla 2.^a lo dispuesto en la 9.^a, que manda constituir, bajo el régimen de la legislación anterior, las tutelas y curatelas cuya constitución esté pendiente de la resolución de los Tribunales; pero entendiéndose esto sin perjuicio de que los curadores ya en ejercicio tomen el nombre genérico de tutores, y de que todos ellos se sometan, en cuanto al desempeño de su cargo, a las disposiciones del Código.

De la regla 2: procede igualmente la 11.^a, que manda sigan su curso los expedientes de adopción, emancipación voluntaria y dispensa de ley, pendientes ante el Gobierno o los Tribunales.

Pero el rigor de la regla fundamental en esta materia, o sea, la de atender a la legislación vigente al tiempo de adquirirse el derecho, exige también ciertas excepciones, aunque de corta trascendencia. Los efectos de la patria potestad respecto a los bienes de los hijos, según el Código, no siempre convienen con los mismos efectos según la legislación anterior. En su consecuencia, aquello en que difieran debería regirse por dicha legislación, cuando los padres estuvieren, conforme a ella, ejerciendo su potestad. Pero la patria potestad en el moderno derecho no tiene, ni ha tenido a los ojos de los autores del Código, el sentido que le dio la legislación romana. Concédese a los padres el poder tuitivo a que se llama patria potestad, no para su personal provecho, sino para el más fácil cumplimiento de los altos deberes que la naturaleza y la ley les imponen respecto a sus hijos. A este fin se encaminan, de un lado, el reconocimiento de la autoridad paterna, y de otro, el disfrute y administración de los peculios. Por lo mismo, sólo se pueden mantener y asegurar al padre estas facultades, en cuanto subsistan los deberes para cuyo cumplimiento fueron otorgadas. Si, pues, los hijos, al salir de la patria potestad, prefieren vivir bajo la autoridad y en el domicilio de sus padres y seguir, como en tales casos es presumible, la dirección y los consejos de éstos, parece natural que subsistan la administración y el usufructo de los peculios, por todo el tiempo que la anterior legislación los mantenía. No será entonces el legislador, sino la voluntad tácita del hijo, quien prorrogue la autoridad y las facultades paternas. Y por la misma razón, desde que el hijo mayor de veintitrés años salga de la casa de su padre cesará la presunción en que descansa la regla 5.^a y con ella los derechos de administración y usufructo que al padre corresponden sobre los bienes del peculio.

indarrean jarri aurretik izendatutako tutore eta kuradoreek, bai eta absenteen ondasunak aldi baterako eduki eta administratzen dituztenek ere; alabaina, kargu horren egikaritzaz denaz bezainbatean, legeria berriaren menpe geratuko dira karguok.

2. erregelak ere 9.ean xedatutakoa ondorioztatzen duo Azken horrek agintzen duenez, auzitegiek eman beharreko ebazpenaren zain badago tutoretza eta kuradoretza jakin batzuen eraketa, eraketa hori aurretiazko legeriaren arabera burutu beharko da. Hori gorabehera, karguan diharduten kuradoreei tutore izen generikoa emango zaie, eta, horrez gain, horiek guztiek euren karguak bete behar dituzte, kodearen xedapenekin bat etorritz.

Bide berean, 2. erregelatik ateratzen da 11.a. Horren aginduz, adopzio, borondatezko emantzipazio eta lege-barkatzeari buruzko espedienteek aurrera egin behar dute, horiek erabakitzeke badaude Gobernu edo auzitegietan.

Ondorenez, gai honetan oinarrizko erregela da eskubidea eskuratzeko ulean indarrean dagoen legeria aplikatzea. Dena den, erre gel a horren zorrotasunak salbuespen batzuk izan behar ditu, garrantzi txikiko salbuespenak badira ere. Ez datoz beti bat kodearen arabera guraso-ahalak seme-alaben ondasunen gainean dituen ondoreak eta aurretiazko legeriaren arabera halako kasuetan sortzen zirenak. Horren ondorioz, ondoreen arteko desberdintasunak daudenean, aurretiazko legeria aplikatu behar da, baldin eta gurasoek euren ahala egikaritzen badihardute legeria horren arabera. Nolanahi den ere, zuzenbide modernoan, guraso-ahalak ez du legeria erromatarrek eman zion esangurarik, eta kodearen autoreek ere horixe uste izan dute. Gurasoek duten babes-ahalmenari guraso-ahal deitu ohi zaio. Ahal hori ez da gurasoen euren onurarako, ezpada gurasoek izaeraz eta legez seme-alabei begira dituzten eginbehar gorenak errazago betetzeko. Helburu hori erdiestera bideratuta daude gurasoen aginteari egindako aitorpena, eta ondareen luperketa eta administrazioa ere. Arrazoi berberaren ondorioz, gurasoari ahalmen horiek eman eta ziurtatu behar zaizkio, ahalmen horiek zein eginbehar betetzeko eman eta eginbehar horrek indarrean dirauen heinean. Hortaz, guraso-ahaletik irtetea, seme-alabek nahiago badute gurasoen agintepean eta egoitzan bizi, eta, kasu horietan logikoa denez, gurasoen zuzendaritza eta aholkuei men egitea, badirudi zentzuzkoa dela ondareen administrazioak eta gozamenak indarrean irautea, aurreko legeriaren arabera horiek izan behar zuten epe osoan zehar. Horrelakoetan, gurasoen aginte eta ahalmenak ez dira luzatuko legegilearen aginduz, baizik eta seme edo alabaren isilbidezko borondatearen ondorioz. Arrazoi berberaren ondorioz, hogeita hiru urtekoa baino nagusiagoa den seme edo alabak gurasoaren etxetik alde egin duenetik, ezerezean geratuko da 5. erregelaren uztarri den presuntzioa. Ondorenez, indarririk gabe

Pero cuando los derechos del padre procedan de un acto suyo, legítimo y voluntario, otorgado con condiciones recíprocas, bajo el antiguo régimen jurídico, la justicia manda respetarlo y mantenerlo, sin limitación alguna. Así, el padre que voluntariamente hubiese emancipado a un hijo, reservándose algún derecho sobre sus bienes adventicios, podrá continuar disfrutándolo hasta el tiempo en que el hijo debería salir de la patria potestad según la legislación anterior.

También tiene carácter en cierto modo excepcional del principio que domina en esta materia, la regla 10.", que establece ciertas restricciones a la introducción inmediata del consejo de familia, cuando la tutela estaba ya constituida o constituyéndose al empezar a regir el Código.

Siendo esta nueva institución enteramente desconocida en España, su establecimiento requiere temperamentos de lentitud y prudencia, si no ha de comprometerse su éxito.

Por eso, aunque el Código, legislando para lo porvenir, dispone que los Jueces y Fiscales municipales procedan de oficio al nombramiento del Consejo de Familia si supieren que hay en su territorio alguna persona sujeta a tutela, la Sección entiendo que este precepto no es aplicable sino a los menores o incapacitados cuya tutela no estuviese definitivamente constituida al empezar a regir el Código, sin perjuicio de que, tanto en este caso como en el de estar funcionando el tutor, deberá nombrarse el consejo cuando lo solicite persona interesada, y siempre que deba ejecutarse algún acto que requiera su intervención.

Mientras no vaya entrando en las costumbres la nueva institución, la iniciativa fiscal para promover su uso podría más bien perjudicarla que favorecerla.

Por la misma razón, cuando la tutela estuviese ya constituida bajo el régimen de la legislación anterior, no se deberá proceder al nombramiento del consejo sino a instancia de cualquiera de las personas que tengan derecho a formar parte de él, o del tutor; y seguramente no faltarán estas instancias, siendo tantos los casos en que los actos del menor o de la administración de su patrimonio no pueden verificarse legalmente sin la intervención del Consejo de Familia.

A estos casos, más que a la espontánea acción fiscal, se deberán con el tiempo la realidad y la práctica de la nueva institución.

Algo de excepcional ofrece también la regla 12.^a, la cual, después de prescribir que los derechos a la

geratuko dira gurasoari ondareko ondasunen gainean dagozkion administrazio- eta gozamen-eskubideak.

Edozein modutan ere, gurasoaren eskubideak sortu badira aurretiazko araubidearen menpe eta gurasoak berak, elkarrekiko baldintzekin, lege bidez eta borondatez, burutu duen egintza baten ondorioz, justiziak berak agintzen du egintza hori errespetatu eta horri eustea, inolako mugarik gabe. Horretara, gurasoak bere borondatez semea edo alaba emantzipatu badu ondasun adbertizioen gainean eskubideren bat bere buruarentzat erreserbatuz, guraso horrek eskubidearen luperketari eutsiko dio, harik eta aurretiazko legeriaren arabera zein epetan seme edo alabaren gaineko guraso-ahala azkendu eta epe hori bete arte.

Era berean, eta gai honetan agintzen duen printzipioari begira, salbuespenekoa da, nolabait, 10. erregela. Erregela horrek murrizketa batzuk jarri ditu Familia Kontseilua berehalakoan ezartzeko, tutoretza jadanik eratuta badago edo kodea indarrean jartzean eratzeko badago.

Erakunde berri hori guztiz ezezaguna da Espainian. Horregatik, berori arian-arian eta tentuz ezarri behar da; bestela, ez da arrakastatsua izango.

Hori dela medio, etorkizunean gertatuko den hori arautuz, kodeak xedatu du udal epaile eta fiskalek ofizioz izendatu behar dutela Familia Kontseilua, jakin dakitenean euren lurraldean norbait tutoretzapean dagoela. Atalak ulertu izan du manu hori adingabe edo ezgaituei aplikatu behar zaiela, noiz eta kodea indarrean jartzean euren gaineko tutoretza oraindik behin betiko eratu gabe dagoenean bakarrik. Dena den, kasu horretan eta tutoreak lanean diharduenean ere, kontseilua izendatu behar da, pertsona interesdunak hala eskatzen badu edo edozein egintza burutzeko beharrezkoa bada kontseilu horren esku-hartzea.

Erakunde berria ohituretan sartzen ez den bitartean, fiskalak bere ekimena erabiltzen badu kontseiluaren eraketa sustatzeko, ekimen horrek, onurak baino gehiago, kalteak ekar ditzake.

Arrazoi berberaren ondorioz, tutoretza jadanik eratuta badago aurretiazko legeriaren araubidepean, kontseilua izendatuko da, berori osatzeko eskubideak dituzten pertsonetatik edozeinek edo tutoreak berak hala eskatuta. Ziur asko, halako erakundeak sarritan sortuko dira, maiz gertatzen baita adingabearen egintzak edo beraren ondarearen administrazioa legez ezinezkoak izatea, Familia Kontseiluaren esku-hartzerik gabe.

Erakunde berriaren izatea eta praktika, denboraren poderioz, halako kasuen araberrakoak izango dira, fiskalaren berezko akzioaren araberrakoak baino gehiago.

12. erregela ere, neurri batean, salbuespenekoa da. Horrek agintzen duenez, testamentuaren bidez nahiz

herencia de los fallecidos, con testamento o sin él, antes de estar en vigor el Código, se rijan por la legislación anterior, y que la de los fallecidos después se reparta y adjudique con arreglo a aquél, dispone que se respeten las legítimas, las mejoras y los legados, pero reduciendo su cuantía si de otro modo no se pudiese dar a cada partícipe en la herencia lo que le corresponda según la nueva ley.

La legislación anterior no reconocía porción legítima a los cónyuges ni a los hijos naturales, como lo hace la vigente, ni permitía al padre disponer libremente del tercio de su haber.

El que hizo testamento válido bajo el régimen de aquella legislación, no pudo disponer, teniendo hijos, más que del quinto de sus bienes, ni mejorar a cualquiera de aquéllos en más del tercio de éstos.

Pero si murió después, rigiendo el Código, como por razón del tiempo en que ha ocurrido su muerte resultará aumentada la parte disponible del testador y reducida por tanto la legítima y acrecentadas en su caso las mejoras, el testamento habrá de cumplirse reduciendo o aumentando las porciones hereditarias si así fuere necesario, para que todos los partícipes forzosos en la herencia, según el nuevo derecho, reciban lo que les corresponda conforme al mismo.

Aunque la Sección ha buscado detenidamente en el Código todos los casos de conflicto que puedan ocurrir entre sus disposiciones y las del antiguo derecho, y cree que todos los conocidos podrán resolverse por las reglas transitorias que quedan expuestas, le ha parecido conveniente prever otros casos, que puedan ocurrir en la práctica y no se hallen directamente comprendidos en aquéllas.

Si esto ocurriere, toca a los Tribunales decidir lo que a su juicio corresponda, pero no a su libre arbitrio, sino aplicando, según la regla 13.^a, los principios que sirven de fundamento a las demás transitorias.

Fuera de las enmiendas y adiciones que quedan indicadas, nada más ha tenido que hacer la Sección sino algunas correcciones de estilo, o de erratas de imprenta o de copia, cometidas en la primera edición del Código.

Fácil será advertidas comparando los textos adjuntos con los publicados, y así se verá que sus diferencias son tan poco importantes y sus motivos tan evidentes, que no es necesario llamar la atención sobre ellas.

Expuestas las consideraciones que preceden, y dado

testamenturik gabe, hildakoen jarauntsietan norbaiti eskubide batzuk badagozkio kodea indarrean jarri baino lehenago, eskubide horiei aurretiazko legeria aplikatuko zaie. Aitzitik, kodearen arabera banatu eta adjudikatu behar dira gerogarrenean hil diren pertsonen jarauntsiak. Hori agindu eta gero, harako erregelak xedatzen du seniparte, hobekuntza eta legatuak errespetatu behar direla, baina euren kopurua urritu beharra dagoela, baldin eta jarauntsiko partaide bakoitzari ezin bazaio eman lege berriaren arabera dagokiona.

Aurretiazko legeriak, indarrekoak ez bezala, ez zien seniparte-zatirik eman ezkontideei, ezta odoleko seme-alabei ere; gainera, ez zion gurasoari biderik eskaini, bere hartzekoaren herena askatasunez xedatzeko.

Aurretiazko legeriaren araubidepean baliozko testamentua egin nahi zuenak, seme edo alabarik izanez gero, ezin zituen xedatu bere ondasunen bostenak baino gehiago, eta, seme edo alaben artean edozein hobetzeko, herena besterik ez zuen.

Pertsona hori kodea indarrean jarri eta gero hilez gero, bere heriotza data dela-eta handitu egingo da testamentugileak xeda dezakeen zatia, eta, ondorenez, txikiagotu egingo da senipartea, eta, hala denean, hobekuntzak handitu. Horregatik, testamentua bete beharko da jarauntsiko portzioak urrituz edo handituz, hori beharrezkoa den heinean. Horrela, jarauntsian nahitaez parte hartu behar duten guztiek eskura dezakete zuzenbide berriaren arabera euren dagokiena.

Kodearen beraren eta antzinako zuzenbidearen xedapenen artean, gatazka-kasuak sor daitezke, eta Atala sakontasunez saiatu da kodean halakoak bilatzen. Atalaren aburuz, gatazka ezagun guztiak konpon daitezke, aipatu erregela iragankorren bitartez. Dena den, Atalaren iritziz, komeni da beste kasu batzuk arautzea, horiek praktikan gerta baitaitezke, eta ez baitaude, ziur asko, xedapen iragankorretan zuzen-zuzenean barnertuta.

Horrelakorik gertatuz gero, auzitegiei dagokie euren ustez egoki dena erabakitzea; baina, horretarako, auzitegiek ezin dute nahierara jokatu. Aitzitik, 13. erregelaren arabera, auzitegiek aplikatu behar dituzte gainerako xedapen iragankorren oinarrian dauden printzipioak.

Aipatu zuzenketa eta eransketetatik kanpo, Atalak zuzenketa txiki batzuk egin ditu, kodearen lehenengo argitaraldian egindako estilo-akatsak, inprimatze-errakuntzak edo kopia-okerrak konpontzeko.

Horiek antzematea erraza izan daiteke, honekin batera datozen testuak argitaratutakoekin alderatuz gero. Horrela ikus daiteke euren arteko desberdintasunak ez direla batere garrantzitsuak izan; beraz, halakoak zuzentzeko arrazoiak begibistakoak izan dira. Hori dela eta, ez du merezi horrelakoak sakontzea.

Aurretiazko oharbide guztiak azaltzean, ezagutarazi

a conocer en ellas lo que principalmente merece notarse en los trabajos a que se refieren y en el espíritu que los ha animado, cree la Sección deber dar aquí por terminado el encargo recibido.

nahi izan da horiek aipatzen dituzten lanetan eta horiek egitea bultzatu duen espirituan azpimarragarriena dena. Hori egin ondoren, Atalak uste du bere ardurapean jarritako agindua bete eta horrekin bukatu duela.